

ZARAUTZ EKINEZ EGINA

HAUTESKUNDE PROGRAMA PROGRAMA ELECTORAL

Xabier Txurruka

EAJ-PNVren alkategaia



EMAN BOTOA / VOTA



**EAJ
PNV**

HACER CRECER **EUSKADI** HAZI ARAZI

1. GARDENTASUNA. Gobernatzeko molde berriak

Udala gobernu onaren eta etika egokiaren printzipioetan oinarrituta zuzendu, eta kudeaketa ireki, zorrotz eta gardena sustatuko dugu.

1. Udaleko tramite eta prozedurak murriztu eta arindu.
2. Legealdiko Kudeaketa Plana onartu, epe luzeko estrategiak zein epe motzeko ekintzak barne hartuz, ebaluaketarako adierazle zehatzekin. Kudeaketa Plana Zarauzko Kontseilu Sozialaren eta Osoko Bilkuran aurkeztuko da, eztabaida eta onarpenerako.
3. Gardentasuna kontratazioan: "Herritar guztiek eduki behar dute zer, nola eta noiz esleitzen den jakiteko aukera". Oposizioko talde guztiek parte hartuko dute kontratazio mahaietan.
4. Kontratazioetarako, Zarauzko hornitzaileen erregistro bat sortu.
5. Alkatetzaren dekretuak eta Gobernu batzordearen erabakiak publikatu.
6. Jokabide etikoa bermatzeko kodea, eta gobernu onerako dekalogoia onartu.
7. Udalaren gastu korrontea murrizteko plana onartu.
8. Udal politiken etengabeko ebaluazioa bermatzeko mekanismoak martxan jarri, eta helburuen arabera kudeaketa sustatu.
9. Herritarren Arreta Zerbitzu (HAZ) berria finkatu eta bultzatu.
10. Udal talde eta elkarteek, eta bizilagun elkarteek aurkezten dituzten mozioak Udalbatzarrerara eramateko konpromisoa.
11. Zarauztarrek ohiko informazio batzordeetan parte hartzeko duten eskubidea errespetatu.
12. Udalaren gardentasuna erraztuko duen web orria sortu, eta egun dauden web orriak zentralizatu eta antolatu.
13. Aurrekontuaren exekuzio mailaren berri eman maiztasun jakin batekin.
14. Alkatearen eta zinegotzien eguneroko agenda publikatu.
15. Alkateak zein zinegotzi delegatuek asteko egun bat zehaztuko dute hala eskatzen duten bizilagunekin biltzeko, aurretiazko hitzordu sistemaren arabera.
16. Zarauzko Kontseilu Soziala sortu, urtean bitan, herriaren egoera aztertzeko elkartuko diren 50 entitatetako ordezkariarekin.
17. Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu, baliabide eta lanen inguruko gida publikatu, modu argi eta ulergarrian, kontakturako dagozkien telefono eta helbideekin.
18. Herritarrek egiten dituzten eskaerei erantzuteko gutxieneko epe bat finkatu.
19. Ematen diren zerbitzu eta tramiteen eraginkortasun maila neurtu.
20. 24 orduko arreta zerbitzu telematikoa sortu.
21. Giza Eskubideen Udal batzordea eratu, herrian berradiskidetzea, memoria eta normalizazio politikoa jorratzeko.
22. Udalaren Berrikuntzarako Plana osatu, Zarauzko eragileekin elkarlanean, administrazio moderno, sortzaile, berritzaile eta kolaboratiboa finkatzeko. Udal administrazioaren kulturaren eta funtzionamenduan aldaketak sustatu, herritarren eskari berrietara egokituz modu berritzaile eta modernoagoan.
23. Gobernu Irekia, Gardentasuna edo Kontu-Ematearen aldeko estrategiak garatzen lan egiten duten intereseko sareetan aktiboki parte hartu, autonomia, estatu zein nazioarte mailakoak kontuan hartuta.
24. On-line tramiteen eskaintza handitu udaletxean.
25. Plataforma teknologikoa garatu, goian aipaturiko behar eta helburuei erantzuna emateaz gain (gardentasuna, informazioa, parte-hartzea, on-line tramiteak), herritarrei sarbide bateratua eskaintzeko, eta udal departamentuei lanerako eta kontsultarako tresna errazteko (kudeaketa dokumentala).

2. JARDUERA EKONOMIKOA. Enpleguari eta ekonomiari lehentasun osoa emango diogu

Langabeziari aurre egiteko, eta jarduera ekonomikoa, enpresa arloa eta kalitatezko turismoa sustatzeko plangintza abiarazi, gizarte justu eta orekatuagoa eraikitzeke ezinbesteko baldintza delako.

1. Udal Elkartearen papera indartuko dugu, eskualdean enpleguaren eta jarduera ekonomikoaren benetako motorra izan dadin, eta garapen agentzia gisa funtziona dezan.
2. Errotaberriko industria poligonoa martxan jarri eta bultzatu, Zarautzen industria ehuna pizteko.
3. Interlokuzio lehiatila bakarra sortu Udalaren, eta enpresa eta negozioen artean, lokal, lurzoru eta tramite eta prozeduren inguruan informazioa emateko.
4. Langabetuen kontrataziorako, eta jarduera ekonomikoa eta ekintzaitetasuna bultzatzeko dirulaguntzak zabaldu eta handitu, enpleguaren kalitateari erreparatuz, eta arreta berezia eskainiz gazteei, iraupen luzeko langabetuei, eta 50 urtetik gorakoei, kasu guztietan gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna bermatuz.
5. Autonomoei eta enpresa eta negozio txikiei babesa eta orientazioa eskaini.
6. 'Co-working' guneak sustatu, Udal Elkartearekin elkarlanean.
7. Baserritarren eta nekazarien jarduna babestu, haien produktuak ezagutaraziz eta kontsumoa eta salerosketa bultzatuz. Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasuna bezalako beste erakundeen dirulaguntzen kudeaketan bitartekaritza eskaini.
8. Lehen sektorearen potentziala aztertu, ez bakarrik ekoizpenaren ikuspuntutik, baita nekazal eta elikadura industriaren ikuspuntutik ere.
9. Herriko merkataritza dinamizatu eta merkataria eta ostalarien arteko elkarlana sustatu Murkil eta Zurekin elkarleen bitartez. Plataforma digitala sortzea aztertu.
10. Herriko establezimenduak babestu, erosketa esperientzia hobetzen duten teknologia eta proiektuak ezartze aldera.
11. Ekonomia sozial, kooperatibo eta solidarioari lotutako jarduerak sustatu.
12. Enpresa eta negozioen eskualdatzea ahalbidetu Berriz egitasmoaren bitartez.
13. Herriko enpresen jarduerari eusteko, horien lehiakortasuna bultzatu eta zerbitzuak hobetuko dituzten ekintza urbanistikoak burutu: komunikazio sareak, sarbideak...
14. Zarautzen inbertituko duten enpresa eta negozio berriak erakartzeko ahalegina egin, jasangarritasunari erreparatuz. Tramiteak eta lizentziak lortzeko epe eta kostuak murriztu.
15. Zarautz enpresen kokapenerako gune gisa promozionatu, eskaintzen dituen abantailak ezagutaraziz zirkulu eta eztabaidagune egokietan, kalitatezko enplegua sortu, eta azken urteetan galdu duen industria ehuna berreskuratze aldera.
16. Zarautzentzat komunikazio proiektua garatu, marketin plan batetik abiatuta. Ohiko komunikabideak lantzeaz gain, internet eta sare sozialen bidezko marketina ere jorratu (blogak, erreferentziazko guneak...).
17. 'Bisitari' kontzeptua garatu, 'turista' kontzeptuari kontrajarrita.
18. Bisitarietzako informazio guneak indartu, herriko sarreretan bereziki, horiek baitira Zarautzko aurkezpen karta.
19. Zarautzi oihartzuna eta inpaktu ekonomikoa ematen dizkieten ekitaldi eta ospakizun sozial, kultural eta kirol arlokoak bultzatu eta babestu.



2. JARDUERA EKONOMIKOA. Enpleguari eta ekonomiari lehentasun osoa emango diogu

- ⇒ 20. Turismoaren Plan Estrategikoa. Kalitatezko turismoaren aldeko apustua egin, Zarautzen ekonomiaren euskarri gisa. Honako arloak kontuan hartu: bikaintasuna, jasangarritasuna eta dibertsifikazioa. Udatik haratagoko eragina izatea, eta beste ekonomia sektoreetako baldintza berdintsuak dituzten lanpostuak sortzea bilatu behar da, turismo eragileen, hezkuntza zentroen, eta erakundeen arteko elkarlanaren bitartez.
- 21. Turismoaren Aholkularitza Batzordea biziberritu.
- 22. Hondartzatik haratago, eskema turistiko berrien aldeko apustua egin, CICTourgunerekin (Turismoaren Ikerketa Kooperatiborako Zentroa) lankidetzan: turismo gastronomikoa, enoturismoa, nekazal turismoa, turismo aktiboa, turismo artistiko-kulturala, turismo ekologikoa edo ekoturismoa, negozio turismoa, merkatal turismoa, edota osasun turismoa.
- 23. Ostalaritzan edo oro har jendaurrean lan egiten dutenen formakuntzarako laguntza eta planak abiatu, kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko.
- 24. Hutsik dauden lokal komertzialak biziberritzeko neurriak.
- 25. Negozio zentro baten sorrera aztertzea, gutxi gora behera 150 pertsona arteko enpresa ekitaldiak erakartzeko.

3. JUSTIZIA SOZIALA. Inor ezin da bazterrean gelditu.

Giza-Ongizate departamentua eta bere baliabideak bermatu, zerbitzu desberdinak, eta pertsona eta kolektibo ahulenei zuzendutako programak eta gizarte babesa indartuz.

- 1. Behar bereziak dituzten kolektiboekin etengabeko elkarlana.
- 2. Bakarrik bizi diren adineko pertsonen kasuan prebentzioa indartu.
- 3. 65 urtetik gorako beharren inguruko azterketa sozioekonomiko sakona egin.
- 4. Partehartzea bultzatu Adinekoen Mahaiaren bitartez.
- 5. Udal zergetan hobariak aztertu dirulaguntzak jaso edo pentsio baxuak dituztenentzat.
- 6. 'Zaintzaileak zaindu': zaintzaileei babesa eskaini.
- 7. Intereseko gaiei buruzko hitzaldi eta jarduerak bultzatu: berrordainketa, mendekotasun legea, pentsioak, testamentuak...
- 8. Adinekoen protagonismoa eta ikusgarritasun soziala areagotu.
- 9. Integrazio soziosanitarioa bultzatu.
- 10. Hirugarren Adinekoen manifestuaren gomendioak jarraitu.
- 11. Adinekoen eguneroko bizitza hobetuko duten jarduerak sustatu, Euskadi Lagunkoia programa jarraituz.
- 12. Etxelaguntza etxez-etxeke zerbitzua finkatu.
- 13. Irtenbil zerbitzua urte osora zabaltu.
- 14. Familia ugarietzako OHZren deskontua berreskuratu.



3. JUSTIZIA SOZIALA. Inor ezin da bazterrean gelditu.

-
15. Emakumearen Etxearen proiektua definitu, ikuspuntu integratzaile batekin, sentsibiltate guztiak ordezkatzeko.
 16. Lanpardo leko eraikinaren potentziala aztertu, ekipamendu sozio-sanitarioa bertan kokatzeko.
 17. Berdintasunaren III. Plana ezarri, herritar, elkarte eta Udal departamentuekin elkarlanean.
 18. Genero indarkeriaren biktima direnen arreta integrala hobetu.
 19. Ahultasun egoeran dauden adin txikikoen arreta.
 20. Neguko Etxearen zerbitzua indartu, egungo kokapena mantenduz, eta boluntarioen ikuspegia aintzat hartuz. Zerbitzua urte osora luzatzea aztertu.
 21. Elkartasun sareak, eta belaunaldien arteko trukaketa eta inplikazioa bultzatu.
 22. Ezgaitasunak edo gaixotasun larri edo arraroak dituzten adin txikikoen familien laguntzarako fondoa eratu.
 23. Osasun mentalaren zaintza, eta alzheimer eta parkinson gaixoen plataformaren sorrera.
 24. Fondo soziala eratu, gizarte zerbitzuen baremoetatik kanpo gelditzen diren herritarrei krisiak eragindako behar puntualak asetzeko.
 25. Mikrokredituen kontzesioa aztertu.
 26. Udal Elkartearen lanerako brigadak berreskuratu, behar gehien duten kolektiboetara zuzenduta: langabezian luzaroan daramatenak, familia zamak dituztenak...
 27. Giza larrialdietarako eta norbanako laguntzak indartu. Jarraipen eta kontrolerako neurriak eraginkortu.
 28. Bazterketak modu berezian kaltetutako kolektiboetara gizarteratzerako programak abiatu, dirulaguntzak jasotzen dituztenen datuetan oinarrituta.
 29. Eskola eta kirol materialerako dirulaguntzen kudeaketa hobetu.
 30. Elikagaien banaketa birplanteatu, estigmatizazioa saiheste aldera.
 31. Inmigratioari lotutako egitasmoen ebaluazioa.
 32. Ezgaitasunen bat edo mugikortasun urria duten pertsonen Zarautzen antolatzen dituzten jarduerak eta eremu guztietan normaltasun osoz parte har dezaten, neurrietan sakondu.
 33. Udala eta Fiare banku etikoaren arteko lankidetzak formalizatu.
 34. Herriko gobernuz kanpoko erakundeek egiten duten lana baloratu, eta beraien proiektu eta egitasmoen garapenean lagundu.



4. INBERTSIO PUBLIKOA. Proiektu estrategikoak bultzatu

Kudeaketarako Plan batean legealdiko lehentasunak finkatu, egun geldirik edo blokeatuta dauden proiektu nagusiak berrabiaraziz.

1. Santa Klaran oinezkoentzako lur azpiko pasabide berria egiteko proiektua idatzi eta gauzatu.
2. Urtetako zabortegian zigilatze eta mantentze obra eta lanak.
3. Salberdin eremuko urbanizazioa.
4. Errotaberri poligonoko urbanizazio obrak martxan jarri.
5. Irita poligonoko plana berraztertu eta berregokitu.
6. Zarauzko saihezbidearen proiektuari irteera eman.
7. Errepide nagusian, parrokia aurrean, biribilgunea egiteko proiektua.
8. Kortazargo partzela etorkizuneko ekipamenduen beharrari erantzuteko gorde.
9. EPAko -Lanpardo- eraikin zaharraren eta garai bateko Araba kaleko Anbulategiaren etorkizuneko erabilerak aztertu.
10. Udal eraikin eta instalazioak mantendu eta egokitzeko inbertsio plana, hala nola udaletxe zaharra.



5. BIZI-KALITATEA. Bizilagun eta auzoen beharrei erantzun arin eta azkarra eman.

Udal instalazio, azpiegitura eta zerbitzuak hobetzeko egitasmoa onartu: garbiketa, segurtasuna, hondakinen bilketa, energia eraginkortasuna, espaloi eta bideak...

1. Zarautzen zaborren atez ateko bilketa sistema ez ezartzeko konpromisoa hartzen dugu. Urola Kostako Udal Elkartearekin elkarlanean, hondakinen gaikako bilketarako plan integrala jarriko dugu martxan, Hondakinen Mahaian adostutako portzentajera -%70- gerturatzeko. Hondakinen sorrera murrizteko plana garatu, eta egitasmo pilotua martxan jartzeko beste erakundeen lankidetzaz bilatu nahi dugu.
2. Itxasmendi mendebaldean pantaila akustikoak jarri.
3. Itxasmendiko argiteria hobetu, Orokietako bidegorri parean.
4. Lauaxeta, Zinkunegi, eta inguruko kaleetako espaloiak konpondu, bizilagunen iritziak, jabeago pribatuak, eta garajeen sarrerak kontuan hartuta, eta eremu guztian (Mendilauta) trafikoa berrantolatu.
5. Torre Luzeako parkean iluminazioa hobetu segurtasuna bermatzeko. Gainerakoan, parkea dagoen bezala mantendu.
6. Vista Alegre auzoan irisgarritasuna hobeto igogailuen bitartez.
7. Salbidetik Azken Portu Goiara igogailua egiteko proiektua.
8. Bizilagun, eta oro har merkatariekin elkarlanean, Azken Portun hobekuntzak aztertu (Altzola kalean eta ingurukoetan).
9. Herrian, oro har, seinalizazio bertikala hobetu.
10. Puntu ilunetan iluminazioa hobetu, eta LED argi berriak egokitu.
11. Urtetan LED argiteria jarri.
12. Kanpineko igoerako iluminazioa.
13. Kale eta eremu berdeen mantenimendu orokorra hobetu, urte-anitzeko asfaltatze egitasmoa barne hartuta.
14. Biotopoko pasarelan irisgarritasun arrapala eta sarbideetako obrak gauzatu.
15. Biotopoko landaredia eta faunaren kontserbazioa bultzatu, eta babeserako legedia betearazten lagundu. Erakundeen arteko akordioa landu, gunean garbitasuna eta mantenimendua bermatzeko, eta eraztun berde-urdinaren proiektuarekin lotzeko. Hegaztien behatokia zabaltzeko dauden aukerak aztertu.
16. Landa eremuko bide eta bidezidorrak zaindu, homologatu eta zabaldu.
17. Salbideko haur parkea estali.
18. Astiko kantina eremua berreskuratu, zentzuzko inbertsio ekonomikoa eginez. Onartezina iruditzen zaigu 300.000 euro eta 30 urteko esleipena ematea jabetxe pribatu bati.
19. Hirugarren adinekoen egoitzetan hobekuntza lanak. Udaberriko egoitzako bulegoa tokiz aldatu, eta sarrera nagusia moldatu.
20. Ikastetxe eta ikastoletan zuntz optikoa instalatzea erraztu.
21. Gazteen lokalen segurtasuna eta elkarbizitza arautu.
22. Udaltzaingoaren instalazio berriak Nafarroa kaleko Gurutze Gorrian egokitzeko proiektua.
23. Sentsibilizazio eta gizalezko kanpainetan sakondu. Aisialdia eta atsedenerako eskubidea uztartzeko neurriak. Soinu eta zaraten ordenantza hobetu.
24. Babes zibileko taldeei bitarteko gehiago eskaini.
25. Portuan eta kanal aldean sorospen eta salbamendu neurriak hobetu.



5. BIZI-KALITATEA. Bizilagun eta auzoen beharrei erantzun arin eta azkarra eman.



26. Aztirekin elkarlanean aritu, itsasaldien bilkaeraren inguruko datuak jaso eta horien jarraipena egiteko, eta Zarauzko hondartzari nola eragiten dioten aztertzeke.
27. Sorospen eta lehen laguntzako ezagutzak zabaldu, desfibrilagailuaren erabilera aintzat hartuta.
28. Udal ardura diren eraikinetan larrialdi planak eta segurtasun protokoloak eguneratu.
29. Kirol instalazio irekien mantenimendua eta zaintza hobetu.
30. Alde Zaharrean lokala egokitu bizilagunen bileretarako.
31. Haur parkeen mantenuari arreta handiagoa eman.
32. Auzo elkarteei lokalak berritzen lagundu.
33. Garbitasun gehiago: gaikako bilketarako egokitutako zakarrontziak jarri puntu estrategikoetan, ikastetxeen sarreran, etab.
34. "Gaur zure auzoaren txanda da" egitasmoa martxan jarri. Egun bateko ezohiko garbiketa intentsiboak programatuko dira auzoz-auzo, ekintza desberdinak barne hartuta: espaloiak, pintaketak, kartelak, eremu berdeak...
35. Ekitaldi, jarduera eta ospakizun berezietan zikinkeria murrizteko neurriak hartu.
36. Akordio zibikoak landu, ostalari, merkatari, edota ikastetxeekin hitzarmen bereziak sinatuz, Zarauz garbiago mantentzen lagunduko duten konpromisoak hartzeko.
37. Kale garbiketa, kontsumo arduratsua, prebentzioa eta birziklapenari buruzko sentsibilizazio kanpaina bereziak martxan jarri, biztanlegoaren segmentu bereziei zuzenduta. Eskolarteko aroa bereziki landu.
38. Animalia eta maskoten jabeei sentsibilizazio kanpaina bereziak zuzendu. Indarrean dagoen ordenantza, eta oinarritzko elkarbizitza arauak gogoraraziko dira.
39. Elkarlan publiko-pribatua, hutsik edo erabili gabe dauden lokalen fatxadetako elementuak eta eskapareak modu egokian mantentzeko.
40. Udal instalazio eta sareetan energia aurrezteko neurriak hartu. Eraginkortasuna neurtzeko eta fugak detektatzeko azterketak egin.
41. Udalaren ibilgailuak berritzerakoan, ibilgailu 'berdeak' erosteko konpromisoa hartu. Erregai jasangarriak erabili udal ibilgailu eta garraio publikoan.
42. Udal instalazio eta eraikinetan efizientzia energetikoa zaindu. Jatorri berriztagarriko energia elektrikoa kontratatzea aztertu.
43. Beilatokia lekuz aldatu eta handitzeko aurrerapausoak eman.
44. Igerain erreka parkea berritu, Osasun Zentroaren aldamenean. Eremua berreskuratu, aterpearekin eta Jai Txikiko tuneleko urtegiarekin lotuz. Azpeiti Biderantz doan bidea txukundu eta bultzatu.
45. Sakeleko telefonorako aplikazioa martxan jarri, Udalera kexa, abisu eta bestelakoak bidaltzeko.
46. Villa Mundako erabilerei etekin handiagoa atera. Ezkontza edo hileta zibilak bezalako ekitaldiak antolatzeke eremu gisa atondu. Erakusketa gela.
47. Udaltzaingoaren kale-patruien presentzia bermatu eta areagotu, herri-erdialdean zein auzoetan.

6. ZARAUTZEN BIZI. Konpromiso argiak.

1. Etxebizitza eskubideari erantzun hobea emateko 2015-2020 egitasmoa martxan jarri.
2. Etxebiderekin hitzarmena sinatu, alokairuzko etxebizitza parkea handitzeko politikak abiarazteko.
3. Aldapetako 60 etxebizitzen promozioa eraiki.
4. Alokairuaren aldeko apustu argia egin, eta 2015-2019 legegaldian 100 etxebizitza babestu berri eraikiko direla bermatu.
5. Indarrean dagoen OHZren errenergua murriztu, eta alokairuaren araberako hobariak eskaini.
6. Prozesu, tramite eta obrak azkartu eta aurrekontuetan islatu.
7. Fatxada eta eraikinen birgaitze energetikoa diruz lagundu.
8. Eraikinen ikuskaritza teknikoa sustatu.
9. Oztopo arkitektonikorik gabeko alokairu sozialeko etxebizitza parkea osatzeko aukerak aztertu.

7. ELKARTEGINTZA. Herri bizi eta dinamikoa izaten jarraitu behar du Zarautzek.

Herriko talde, elkarte, erakunde eta eragileen eguneroko lana babestu, boluntarioen erreleboa bermatuz eta Zarauzko elkarte sarearen aberastasunari eutsiz.

1. Zarauzko elkarteentzako Udal lokalen lagapena arautu eta hobetu.
2. Tokiko elkarten erregistroa sortu.
3. Dirulaguntzen kudeaketa bidezkoa eta eraginkorra: teknikari bat bideratu egiteko horretara.
4. Herriko talde eta elkarten arteko lankidetzeta eta sinergiak bultzatu, koordinazio mahai baten bidez.
5. Elkarteei aholkularitza zerbitzua eskaini, eguneroko tramiteekin eta kudeaketarekin laguntzeko.

8. HERRITARREN PARTAIDETZA. Inposaketari ez, akordioari bai.

Alderdi politiko, erakunde, eta mota guztietako eragileen arteko lankidetzaz Udal Gobernuaren jardunaren erdigunean kokatu. Benetako partaidetzaren aldeko apustua egin.

1. Herritarren partaidetza eta aholkularitza batzordeak biziberritu.
2. Legealdi osorako partaidetza programa finkatu.
3. Horrez gain, urteroko Partaidetza plana aurkeztuko da herriaren egoerari buruzko eztabaidan. Bertan, antolatuko diren partaidetza prozesuak, horiek gauzatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta pertsonalak, eta egingo diren kontsultak aurreikusiko dira.
4. Herri kontsultak arautu eta normalizatu herriaren egunerokoa.
5. Jarduerak antolatu, parte hartzeaz gain, besteen partaidetza dinamizatzeko interesa edo gaitasuna duten pertsonak hezi eta formatzeko.
6. Gai zehatzetan parte hartzeko interesa duten pertsonekin gaikako erroldak sortu.
7. Informazio eta komunikazio teknologia berriak duten potentzialari etekina atera, gune presentzialekin behar bezala uztartuz.

9. MUGIKORTASUN ETA APARKALEKUA. Mugikortasun jasangarria bultzatu eta aparkaleku faltari behin- betiko konponbidea eman

Egungo beharrei erantzunik onena emateko egitasmoa garatu, herritarren interesak eta Zarautzek duen bokazio turistikoa uztartuz.

1. Garraio publikoaren erabilera indartu, erabiltzaileekin elkarlanean. Beharren arabera lerro edo ibilbide berriak aztertu, edota egun indarrean daudenak egokitu.
2. Urbanoaren zerbitzua hobetu eta berraztertu, maiztasun eta ordutegiari dagokienez, herritarren eskariei erantzuteko.
3. Urbanoaren prezioan hobariak eskaini.
4. Geltokiak bateratu eta garraio bideen arteko konektibitatea bultzatu. Intermodalitatea.
5. TAO sisteman doikuntzak egin, egungo sistema sinplifikatuz.
6. Itxasmendi auzoan biribilgunea eta zubi berria eraikitzeko proiektua.
7. Trafikoa baretu Itxasmendi-Mitxelena, Lanpardo kalean ikastola parean, Azpeiti bidean, Monte Albertia parean, Herrikosoron Lizardi parean, edo Urteta bidean Lasalle parean, besteak beste.
8. Azken Portu Goian trafikoa berrantolatu aparkaleku gehiago lortzeko.
9. Udaren herrira datozen bisitariarentzat aparkaleku bereziak ahalbidetu.
10. Azpeiti bideko bihurtzean (Hiruerreketa) aparkaleku berria, Santa Barbarako plan berezia garatuz
11. Azken Portu ezinduentzako aparkaleku kopurua handitu (Araba kalean besteak beste).
12. Udaren jabetza diren aparkalekuak -280tik gora- modu eraginkorrean kudeatu.
13. Garajeen jabe diren erabiltze pribatuek, plaza horiek erabil ditzatela bultzatu.



9. MUGIKORTASUN ETA APARKALEKUA. Mugikortasun jasangarria bultzatu eta aparkaleku faltari behinbetiko konponbidea eman



14. Irisgarritasunaren kontzeptua herriko bizitzaren alor guztietan txertatu.
15. Sentsibilizaziorako eta bide-heziketarako jarduerak antolatu, oinezko, txirringululari eta ibilgailuen arteko elkarbizitza sustatzeko.
16. Gainezka dauden eremuetan bizikletero gehiago jarri.
17. Etxeen eraikuntza arauak, bizikletentzat gordelekuak aurreikus ditzaten gestioak hasi.
18. Motor eta motoziklorrentzako plaza gehiago sortu.
19. Haurren eskola bideetan segurtasuna bermatu.
20. Mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna hobetzeko, espaloiak egokitzen joan.
21. Zirkulazio araudi eta ordenantzak betetzen direla ziurtatu.
22. Zebrabideetan segurtasuna eta ikusgarritasuna areagotu, kokapen okerra duten edukiontziak mugituz eta iluminazioa ere hobetuz.
23. Eroski pareko biribilguneko autobus geltokia lekuz aldatu.
24. Eroski pareko biribilgunean zirkulazioa aztertu, ohikoak diren auto-ilarak saihesteko.
25. Alde Zaharreko sarbideetan doikuntzak eta hobekuntzak.
26. Donostiako ospitaletara doazen autobus lerroen ordutegiak hobetu eta egokitu, Foru Aldundiarekin elkarlanean.
27. Santa Klara komentuko elizako sarreran zoladura hobetu.
28. Hilerrirako bidean oinezkoentzat espaloia egokitu. Gunean argiteria hobetu.
29. Bizikleta elektrikoen alokairu zerbitzua martxan jartzea aztertu.
30. Gaur egungo bidegorri eta bizikleta bideen sarea berrikusi, dauden puntu arriskutsuenak desagertaraziz, eta etorkizunean izan dezakeen erabileraren arabera garatuz eta hobetuz.



10. EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA. Zarautzen nortasun ikurrak.

Kirol, kultur eta aisialdi jardueren eskaintza hobetu, gure herriko bizimodu aktiboaren hauspoa direlako.

EUSKARA

1. Euskara bultzatzeko 2015-2017 ekintza plana garatu.
2. Ezagutza ez ezik, erabilera ere bultzatu eta zabaldu, esparru desberdinetan.
3. Euskararen irudi positiboa hedatu, eta interneten eta ekoizpen kulturalean euskarari lotutako baliabide eta tresnak ezagutarazi.
4. Euskararen Aholku Batzordea indartu.
5. Euskaltegian ikaskeko aukerak bultzatu eta modernizatu.
6. Sare sozialei, euskarri digitalei eta aplikazio berriei lotutako ekimenak sustatu.
7. Gazteen artean erabilera areagotu eta aisialdiari lotu.
8. Udalak ematen dituen dirulaguntzak sortzen diren behar berrietara eta gizartearen aldaketetara egokitu.

KULTURA

1. Erakusketa, hitzaldi, mintegi, kontzertu, antzerki eta ikuskizunen eskaintza zabalagoa eta anitzagoa.
2. Musika Eskola finkatu eta indartu.
3. Sanz Eneako liburutegia hobetu, ordutegiak, wi-fi-a eta ikasketa gelak kontuan hartuta, besteak beste.
4. 'Zarautz, letren herria'. Idazle zarautzarren lanak balioetsi eta ezagutarazi, eta gazteen artean idazteko eta irakurtzeko ohitura areagotzen jarraitu, lehiaketa eta pizgarrien bidez.
5. Zarauzko kultur-ondarea: honen balioa ezagutarazi heziketa mailan zein maila ludikoan. Herriak duen potentziala landu, museoei, artelanei, arkitekturari, etnografiari, historiari edota arteari lotuta. Kontserbazioa eta ezagutza bultzatu ibilbide bereziak, bisita gidatuak edota antzezlanak antolatuz.
6. Beste erakundeekin elkarlanean, Mollarriko zamalekua bultzatu industria ondarearen ikuspegitik, mineralaren garraioari erreparatuz.
7. Udal artxiboen kontsulta eta irisgarritasuna erraztu. Espazio fisikoa eta bitarteko egokiak jarri.
8. Tokiko hedabideak babestu elkarlanaren bitartez.
9. Herritarren aldizkari edo web orrialdea. Egun dauden tankerako ekimenen irismena aztertu eta beharrezko neurriak hartu horien aniztasuna eta eraginkortasuna bermatzeko.
10. Euskal kulturari eta folkloerari, eta bereziki Zarauzkoari lotutako ikastaro, ikerketa eta mintegiak promozionatu.
11. Modelo Zinemaren inguruan ideia lehiaketa antolatu, funtzio askotariko esparru gisa garatu ahal izateko eta, zine aretoa izateaz gain, partzialki bada ere, herriko talde eta elkarteek antolatutako ekimenak hartzeko eta beraien beharrak betetzeko balio dezan. Multimedia hitzaldi aretoa sortzeko aukera aztertuko da.
12. Ebro Etxea eta Artezaleak-ek eskaintzen dituzten aukerak indartu.



10. EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA. Zarautzen nortasun ikurrak.



13. Herritarren eskariaren araberako kultur eta aisialdi ekitaldi berriak sortu -zineforuma, etabar.-.
14. Kulturklik zerbitzua zabaldu eta ezagutarazi.
15. Zarautzen Hizkuntza Eskola Ofiziala martxan jartzeko tramiteak hasi.
16. Zarautzekin senidetutako atzerriko herriein elkartruke jarduerak areagotu.
17. Formakuntza eta ikasketarako bekak indartu.
18. Kulturartekotasuna landu integraziorako, hazkunde pertsonalerako, eta hurkoaren ezagutzarako tresna gisa.
19. Interakzioa, elkarbizitza eta sormena bultzatzeko topaguneak martxan jarri. Kultura, erlazionatzeko modu gisa: gazteak-jubilatuak, bertakoak-etorkinak...
20. Sortzaile zarautzarrentzat lanerako espazio komunak ahalbidetu (musikariak, idazleak, artistak...) eta beraien jarduera babestu, herriko programazioan leku errepresentatiboa eskainiz.
21. Gaztelekuaren inguruko hausnarketa, duen potentzial guztia aprobetxatzeko.
22. Eskola - Kultura. Gaztetoenei kultura gerturatu eta eguneroko ohituretan txertatzeko programa, kontsumoaren zein sormenaren ikuspuntutik, guraso elkarrekin, hezkuntza zentroekin eta Hezkuntza departamentuarekin elkarlanean.

KIROLA

1. Kirola guztiontzat. Kirol praktika adin guztietan bultzatu eta unibertsalizatu, bizimodu sano eta osasuntsurako oinarri bezala.
2. Kirol egokituari eta eskola kirolari bultzada eman, esparru horietako eragileekin elkarlanean.
3. Kirol talde eta elkarleen dirulaguntzak modu eraginkorrean eta atzerapenik gabe kudeatu.
4. Begirale eta kirol entrenatzaileen formakuntza. Irabazi asmorik ez duten taldeei, begirale eta entrenatzaile titulua ateratzeko laguntzak eskaini.
5. Herriko kirol taldeen entrenamendurako instalazioetan dagoen gabeziari aurre egin. Lizardi institutua eta polikiroldegia arteko pista estali.



10. EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA. Zarautzen nortasun ikurrak.



6. Asti garatzeko urte-anitzeko plana abiarazi, erabilera mistoko zelai berria, aldagelak, rugby zelaiko harmailtako estalpea, atletismo pista, eta etorkizuneko beharren arabera sor daitezkeen bestelako espazioak kontuan hartuta.
7. Ikastola eta ikastetxeekin kirol instalazioen erabileraren inguruan sinatutako akordio eta hitzarmenak berritu. Hitzarmenetan, instalazio gabezia arintzen lagun dezaketen obrak aurreikusi.
8. Potentzial ekonomiko eta turistikoa duten kirol probak eta diziplinak indartu eta hazkunde tarte handia izan dezaketenak martxan jarri, lehiaketa zirkuituetako probak kontuan hartuta.
9. Surf eskolen kudeaketarako eta kontrolerako sistema hobetu, hondartzaren erabileraren testuinguruan.
10. Golk klubarekin elkarlana handitu, txapelketak, eta proiektzio mediatikoa duten jarduerak antolatzeko, besteak beste.
11. Herri kirolak eta kirol minoritarioak bultzatu, esperientzia pilotuen bidez.
12. Polikiroldegiko ordutegiak erabakitzeko partaidetza prozesua abiarazi.
13. Zelai Ondoko bolatokia estali.
14. Polikiroldegiko gimnasioko tresneria berritu eta hobetu.
15. Polikiroldegian gaztetxoek igeriketa bultzatu.
16. Astin kirolari lotutako garapen polo baten oinarriak jartzeko ekimenak aztertu: kirol medikuntza, masaje eta fisioterapia, planifikazioa, gimnasioak, etabar..

HECHOS PARA ZARAUTZ

HAUTESKUNDE PROGRAMA PROGRAMA ELECTORAL

Xabier Txurruka

candidato a alcalde
de EAJ-PNV



EMAN BOTOA / VOTA



**ejaj
pnv**

HACER CRECER **EUSKADI** HAZI ARAZI

1. TRANSPARENCIA. Otra manera de gobernar

Dirigir el Ayuntamiento siguiendo los principios del buen gobierno y la ética, con una gestión abierta, rigurosa y transparente

1. Reducir y agilizar los trámites y procedimientos en el ayuntamiento.
2. Aprobar un Plan de Gestión de legislatura, con estrategias a largo, acciones a corto, e indicadores de evaluación medibles. El Plan de Gestión se presentará en el Consejo Social de la Ciudad y ante el Pleno del Ayuntamiento para su debate y aprobación.
3. Transparencia en la contratación: "Todo ciudadano debe poder saber qué se adjudica, cómo y cuándo". Asistencia de todos los grupos de la oposición a las mesas de contratación.
4. Crear un registro público de proveedores zarauztarras para las contrataciones.
5. Hacer públicos los decretos de alcaldía y junta de gobierno.
6. Aprobación de un código ético de conducta y de un decálogo para el buen gobierno
7. Aprobación de un plan para reducir el gasto corriente.
8. Introducir mecanismos para la evaluación continua de las políticas del Ayuntamiento y la gestión por objetivos.
9. Consolidar y potenciar el nuevo Servicio de Atención a la Ciudadanía.
10. Compromiso de llevar al Pleno para su tratamiento todas las mociones presentadas por colectivos vecinales y grupos municipales.
11. Derecho de los zarauztarras a asistir a las comisiones informativas ordinarias.
12. Apertura de una página web para la transparencia municipal y centralización de las ya existentes.
13. Informar periódicamente del grado de ejecución presupuestaria.
14. Publicar la agenda diaria de alcaldes y concejales.
15. Plantear que tanto el alcalde como los concejales señalen un día de la semana para reunirse con los vecinos que lo soliciten, de acuerdo con un sistema de cita previa.
16. Crear el Consejo Social de Zarautz, con 50 representantes de entidades zarauztarras que se reúnan con una periodicidad bianual para analizar el estado del pueblo.
17. Publicar una guía, clara y concisa, de los servicios, prestaciones y trabajos que realiza el Ayuntamiento para la ciudadanía, con sus respectivos teléfonos y formas de contacto.
18. Establecer un plazo mínimo de respuesta en las peticiones ciudadanas.
19. Medir el grado de eficiencia en la prestación de servicios y trámites.
20. Crear un servicio de atención telemática 24 horas.
21. Puesta en marcha de la comisión municipal de Derechos Humanos para abordar la reconciliación, la memoria y la normalización política.
22. Desarrollar un Plan de Innovación del Ayuntamiento elaborado sobre la base del diálogo y encuentro con los colectivos ciudadanos que nos encamine a una administración moderna, creativa, innovadora y colaborativa. Promover cambios en el funcionamiento y la cultura de la administración municipal orientándola a las nuevas demandas ciudadanas de una manera más innovadora y moderna.
